Bertako lehendakaria eta lehendakariordea Kontseiluan bertan izendatuko dira, eta bi urteko iraunaldiarekin Alkatea, Ahaldun Nagusia eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua izango dira haren buru.

compuesto por 5 representantes por cada una de las instituciones. Su Presidente y Vicepresidente se nombrarán en el seno del Consejo y lo ostentarán de manera sucesiva cada dos años, el Alcalde, el Diputado General y la Consejera de Cultura del Gobierno Vasco.

Zentro horrek bertako gune batzuk alokatzeko aukera ematen du, hitzaldiak eta aurkezpenak, enpresa mailako bilerak, koktelak, gala afariak, kontzertuak, publizitate filmazioak eta sari banaketak bezalako ekitaldiak eta jarduerak burutzeko. Espazio hauek alokatzeak bat etorri beharko du programatutako jarduerekin.

Dicho centro ofrece la posibilidad de alquilar varios de sus espacios para desarrollar actividades y eventos tales como conferencias y presentaciones, reuniones empresariales, cócteles, cenas de gala, conciertos, rodajes publicitarios, entregas de premios etc. El alquiler de estos espacios deberá ser compatible con las actividades programadas.

Urtezahar gauean Tabakaleran egindako kotilioiari buruz interpelatu zion Talde honek alkateari otsaileko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean. Emandako azalpenen arabera, kotilioia antolatu zuen enpresa pribatuak libre zeuden hainbat espazio alokatu zituen, hala nola: Patioa, Plaza eta Zentroaren kanpoaldea.

Este Grupo interpeló al Alcalde sobre la celebración del Cotillón de Nochevieja en Tabakalera en la Comisión de Servicios a las Personas del mes de Febrero. Según las explicaciones ofrecidas, la empresa privada encargada de la organización del Cotillón habría alquilado varios de los espacios disponibles, como son: el Patio, la Plaza y parte del exterior del Centro.

Komunak edo arropazaindegia bezalako zerbitzu batzuk Tabakaleraren kanpoaldean ezarri zituzten. Bertan jende asko bildu izanak kexa ugari eragin ditu kotilioi horretara joandakoen artean, jendeari behar bezalako zerbitzua emateko baliabide gutxi ipini zirelako. Kexa horietako asko bainugelak, arropazaindegia, edariak zerbitzatzeko barrak edo zentrorako sarbideak bezalako zerbitzuen neurriekin lotuta daude, zerbitzu horietan ilara asko sortu baitziren. Egoera hori benetan hala izan zela aitortu zen aipatutako Batzordean.

Algunos servicios, como los urinarios o el guardarropa, se dispusieron en el exterior de Tabakalera. La gran afluencia de personas ha originado numerosas quejas entre asistentes a ese Cotillón, debido a la falta de medios dispuestos para atender a la gente debidamente. Muchas de esas quejas se refieren al dimensionamiento de servicios como los baños, el guardarropa, las barras de servir consumiciones o el propio acceso al centro, que originaron largas colas; esta situación fue reconocida en la mencionada Comisión.

Gu kezkatzen gaituen beste alderdi bat da dozenaka milioi euroko kostua izan duen Tabakaleraren helburuekin bat ez datozen

Otro aspecto que preocupa a esta parte es la de la imagen que se proyecta del Centro por la organización de determinados eventos no

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ekitaldi jakin batzuen ondorioz Zentroaren inguruan zabaltzen den irudia. Alkateak berak azaldu zuenez, festa hau antolatzeko baimena ez zuen Tabakaleraren Administrazio Kontseiluak eman, Zentroko Gerentziak baizik.

Talde Popularraren iritziz Tabakalerako Administrazio Kontseiluak finkatu behar ditu Tabakalerako espazio libreen alokairua arautzeko irizpideak, eta irizpide horiek Zentroak programatzen dituen jarduerekin bateragarriak izan behar dute.

Gaur egungo Gobernu Taldea Tabakalerako Administrazio Kontseiluan dagoenez, eta Sozietatean ordezkatuak ez dauden Udaleko gainerako talde politikoei sozietate horren datuak ematen ez zaizkienez, Talde Popularrak honako MOZIOA aurkezten du:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari hau eskatzen die: Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SAren Administrazio Kontseiluari Tabakaleraren espazioak lagatzeko eta alokatzeko proposamenak arautuko dituzten irizpideak helaraztea, Kontseiluak berak berretsi ditzan, Sozietate Publiko honen erabakitzeko organo gorena den aldetik.

Donostian, 2016ko martxoaren 4an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko bozeramailea".

compatibles con el objeto de Tabakalera, un centro público que ha costado decenas de millones de euros. Según explicó el propio Alcalde, la aprobación de la organización de este evento no pasó por el Consejo de Administración de Tabakalera, sino que fue adoptada por la Gerencia del Centro.

El Grupo Popular entiende que el Consejo de Administración de Tabakalera debe marcar unos criterios por los que se rija el alquiler de los espacios disponibles de Tabakalera, y que sean compatibles con las actividades que programa el Centro.

Al formar parte el actual Equipo de Gobierno del Consejo de Administración de Tabakalera, y como no se aportan datos de la sociedad al resto de Grupos políticos municipales, por no estar representados en la Sociedad, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que eleven al Consejo de Administración del Centro Internacional de Cultura Contemporánea SA. los criterios por los que se rijan las propuestas de cesión y alquiler de espacios de Tabakalera, para que sean ratificados por el propio Consejo como órgano máximo de decisión de esta Sociedad Pública.

En Donostia/ San Sebastián, a 04 de Marzo de 2016

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Mª Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José Mª Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BESTE KONTROL MOZIOAK**

**OTRAS MOCIONES DE CONTROL**

**12. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Loiolako Erriberetako iturri-eskulturari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Jose Luis Arrue Pintok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2016ko martxoaren 14an izan zuen bileran Loiolako Erriberetako iturri-eskulturaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure taldeak otsailean ere galdetu zuen iturri-eskultura hori zergatik zegoen gaizki, eta erantzun ziguten Udalak hartu gabe zuela iturri-eskultura hori, artean ez zekitela norena zen eta lan batzuk egin behar zituztela iturriaren bueltan den egurrean.

Hala, hil honetako batzordean berriz galdetu

**12. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a la escultura fuente de Riberas de Loiola.**

“D. José Luis Arrue Pintó, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, celebrada el día14 de Marzo de 2016, relativa a la escultura fuente de Riberas de Loiola.

JUSTIFICACION

Nuestro grupo preguntó el pasado mes de febrero por el mal estado de esta escultura fuente y se nos dijo en comisión que nunca había sido recepcionada, que en ese momento se desconocía de quien era su propiedad y que se iba a realizar una intervención en la madera que rodea la fuente.

En comisión interpelamos por las razones o

dugu zer arrazoi edo motibo dagoen iturri-eskultura hori hartu gabe izateko oraindik, eta Udalarena ez bada, ea asmorik den iturria pentsatuta den bezala egiten duela edukiarazteko jabeari.

Erantzun ziguten iturriak diseinu arazo batzuk dituela (hustubideetan), egitura guztia pentsatu behar litzatekeela berriz eta merkataritza enpresa batena dela. Era berean, aitortu zuten iturriak ez duela jarri zenean pentsatu zen eginkizunik egiten eta segi egingo dutela zurari kasu eginda edukitzeko lanak egiten.

Esan beharrik ez dago hizpide dugun egitura honek pentsatu zen gauzarako balio behar duela, gaur egun ez dagoela horretarako moduan eta auzotarrek, kexuak adierazteko ez eze, gorabehera hau lehenbailehen konpontzeko eskubidea ere badutela.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Donostiako Udalak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Loiolako Erriberatan den iturri-eskulturak dituen arazoak konpondu eta dagokion eginkizuna betetzeko moduan jartzeko, eta, hala badagokio, hartu ere egiteko iturri-eskultura.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

Jose Luis Arrue Pinto,
Talde Popularreko zinegotzia".

motivos por los cuales no ha sido recepcionada esta escultura fuente y por si ,caso de no ser de propiedad municipal, tenían previsto reclamar a la propiedad que la mantenga en funcionamiento de acuerdo con su diseño.

Se nos respondió que tenía problemas de diseño, en concreto de los sumideros, que debería reconsiderarse toda la estructura y que en la actualidad es propiedad de una empresa mercantil, reconociéndose que no cumple con la función prevista y que se va a seguir actuando en el mantenimiento de la madera.

Resulta evidente que esta estructura tiene servir para el fin previsto, que no está actualmente en condiciones para ello y que los vecinos del barrio, además de expresar sus quejas, tienen derecho a que esta cuestión se resuelva en breve plazo.

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que adopte las medidas necesarias para esta escultura fuente del barrio de Riberas de Loiola cumpla con su finalidad, resolviendo los problemas que actualmente tiene, y en su caso proceda a su recepción.

En Donostia/San Sebastián, a 17 de Marzo de 2016

José Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Miguel Angel Diez Bustos jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José Luis Arrúe Pintó, D. Miguel Ángel Díez Bustos y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

--------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**13. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, bide publikoek duten egoerari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko martxoaren 14an izan zuen bileran bide publikoek duten egoeraz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Herritarren kexa eta iradokizunei buruzko 2015. urteko txostenaren arabera, Hiri Azpiegituren eta Zerbitzuen Zerbitzuak jasotzen ditu donostiarren ekimenik gehienak (jarritako kexa eta iradokizun guztien % 46,3

**13. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al estado que presentan las vías públicas de la ciudad.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 14 de Marzo de 2016, relativa al estado que presentan las vías públicas de la ciudad.

JUSTIFICACION

El Informe Anual de Quejas y Sugerencias de los Ciudadanos, de 2015, apunta al área de Infraestructuras y Servicios Urbanos como el departamento municipal que más iniciativas recibe por parte de los donostiarras (un 46,3%

2015ean, 2014an baino % 3,6 gehiago).

Jasotako komunikazioen artean, espaloien eta galtzaden egoera txarraren ingurukoak izaten dira donostiarren kexarik ohikoenak. Gauza hauei, etengabe kasu egin behar zaie, baina aurreko Udal Gobernuak alde batera utzita izan zuen gai hau, eta, gure ustez, ez zuen behar adina ahalegin eta baliabide jarri hiriko bide publikoak behar bezala kasu eginda edukitzeko; eta, horrek oinez nahiz ibilgailuz ibiltzen diren pertsonak haserretzea, deseroso ibiltzea eta arriskuan jartzea ekartzen du askotan.

2015. urtearen amaieran, Udal Gobernuak hiriko hainbat puntu asfaltatzeko 255.766 euroren (BEZa ere sartuta) kanpaina bat jarri zuen abian, 2015eko Udal Aurrekontuaren kontura. EAJ-PSEren gobernu taldeak onartutako aparteko inbertsio planean ere 700.000 euroren kontu-sail bat dator, Donostiako hainbat aldetako zorua hobetzen jarraitzeko, erabiltzeko egoera onean ez badago.

Aurtengo udal aurrekontuak ere badu bide batzuk berritzeko kontu-sail bat, 600.000 eurokoa, eta baita beste bat ere, 200.000 eurokoa, bideko zuloak tapatzeko, Bide Publikoetako eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkariak aurreko bileran gogorarazi zuen eran. Eta, ikusi dituzten lehentasunen arabera ekingo diote.

Hala ere, jadanik aipatu dugun bezala eta gobernu taldeak ondotxo dakien bezala, oraindik ere herritar askok jartzen ditu kexak, gure hiriko bideen egoera dela eta. Ekimen

del total de quejas y sugerencias en 2015, un 3,6% más que en 2014).

Dentro de las comunicaciones recibidas, el mal estado de aceras y calzadas es una de las quejas más recurrentes de la ciudadanía donostiarra. Es necesario un mantenimiento recurrente de estos elementos, y esta cuestión fue obviada por el anterior Gobierno Municipal que, a nuestro entender, no invirtió los esfuerzos ni recursos necesarios para el correcto mantenimiento de las vías públicas de la ciudad, con el consiguiente enfado, incomodo y riesgo para personas y vehículos que, en muchas ocasiones, provoca esta situación.

A finales del pasado año 2015, el Gobierno Municipal puso en marcha una campaña de asfaltado en diversos puntos de la ciudad, por un importe de 255.766 euros (IVA incluido), con cargo al Presupuesto municipal de 2015. El Plan Extraordinario de Inversiones aprobado por el Equipo de Gobierno PNV- PSE incluía, también, una partida de 700.000 euros para seguir mejorando el pavimento de diversas zonas de la ciudad que no presentan las condiciones idóneas para su uso.

El Presupuesto municipal para el presente año comprende, también, una partida para la renovación de algunas vías por un importe de 600.000 euros, a lo que hay que añadir 200.000 euros para parcheo, como recordó en la pasada Comisión el Concejal Delegado de Vías Públicas y Medio Ambiente. Y se actuará de acuerdo a las prioridades detectadas.

A día de hoy, muchos ciudadanos siguen mostrando sus quejas sobre el estado que presentan algunas vías de nuestra ciudad, como hemos referido, y como le consta al

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

honen bidez, Udal Gobernuak bide publikoen ohiko mantentze lanarekiko konpromisoa handitu nahi dugu. Izan ere, herritarrak, pagatzen ditu dagozkion zergak eta Udalak bermatu egin behar dizkio zerbitzu batzuk; kale aldeko nahiz baserri aldeko kale eta bideetan zorua botatzea eta kasu eginda izate hau berau, konparazio baterako.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Donostiako kaleetan brea botatzeko plan bat aurkezteko hiru hilabete baino lehen, haien agintaldia bukatu bitarteko plana, udalerriko kaleen zorua behar bezala konpontzeko aurreikusitako lanen mapa, lehentasunak eta egutegia izango dituena.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea.”.

Equipo de Gobierno. La presente iniciativa pretende reforzar el compromiso del Gobierno Municipal con el mantenimiento ordinario de las vías públicas. Los ciudadanos pagan sus tributos y el Ayuntamiento debe garantizar a éstos servicios tales como la pavimentación y conservación de caminos y vías públicas urbanas y rurales.

Por estos motivos, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que presente, en un período no superior a tres meses, un plan de asfaltado de las calles donostiarras hasta que termine su mandato, con un mapa de actuaciones previstas, prioridades y calendario de ejecución para acometer, debidamente, el arreglo del firme de las calles de la ciudad.

En Donostia/ San Sebastián, a 17 de Marzo de 2016

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Mª Murguiondo Casal jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José Mª Murguiondo Casal, Dª. Olaia Duarte López, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**14. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Morlanseko Ibilgailuen Udal Biltegiko segurtasunik eza dela-eta.**

**14. Moción de control que presenta el Grupo PP, relativa a la falta de seguridad del Depósito Municipal de Vehículos, de Morlans.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari azterkizun, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko martxoaren 16an izan zuen bileran Morlanseko Ibilgailuen Udal Biltegiko segurtasunik eza dela-eta egindako interpelazioaren ondorioz.

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 14 de Marzo de 2016, relativa a la falta de seguridad del Depósito Municipal de Vehículos, de Morlans.

JUSTIFIKAZIOA

Talde Popularrak berriro ekarri nahi du eztabaidara Morlanseko ibilgailuen udal biltegiko langileek egiten dugun eskakizun bat. Joan den otsaileko osoko bilkuran aipamen orokor bat egin genuen 2015eko uztailean inauguraturiko biltegi horretako baldintzez, mahai gainean jarrita zenbait egiturazko eta bestelako akats, langileen ordezkariek hauteman eta eskatuak. Langileen planteamenduaren aurkakoa izan zen Udalbatzak emandako erantzuna, gure proposamena Irabazi taldeak eta gure botoek (guztira, 5) besterik ez baitzuen babestu, EH Bilduk abstentziora jo baitzuen eta udal Gobernuak aurka bozkatu.

JUSTIFICACION

Desde el Grupo Popular donostiarra queremos traer, de nuevo, a debate una demanda que plantean trabajadores del Depósito Municipal de Vehículos, de Morlans. En el Pleno de febrero pasado hicimos una referencia general de las condiciones del actual Depósito (inaugurado en julio de 2015), poniendo sobre la mesa varias defienciencias estructurales y de otro orden detectadas y demandadas por representantes de los trabajadores. La respuesta ofrecida por el Pleno rechazaba los planteamientos de estos trabajadores, ya que nuestra propuesta sólo contó con el apoyo del Grupo Irabazi, y nuestros votos a favor (5 en total); frente a la abstención de EH Bildu, y el voto en contra del Gobierno Municipal.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Hara: joan den astean Mugikortasuneko zinegotziari galdetu genion, zehazki, zerbitzua instalazio horretan emateko segurtasun baldintzez, langileen ordezkariek berriro planteatu dituzten eskakizunak gogoan. Zinegotzi ordezkariaren erantzunak, berriz, bizkarra eman zien Biltegiko langileen planteamenduei.

Pues bien: la semana pasada interpelábamos a la Concejal de Movilidad, específicamente, sobre las condiciones de seguridad en que se presta el servicio en dicha instalación atendiendo a las demandas que vuelven a plantear los representantes de los trabajadores. Las respuesta de la Concejal Delegada, una vez más, volvió a dar la espalda a los planteamientos de empleados del Depósito.

Duela astebete, 2016ko martxoaren 15ean, Somos Sindicalistas, ELA eta CCOO sindikatuen atalek dokumentu bat aurkeztu zuten erregistro bidez udalean, udal talde guztientzat, hartan kezkatuta agertzen direla Morlanseko Ibilgailuen Udal Biltegian hauteman duten segurtasunik ezagatik, egunero, hantxe lan egiten behar izaten baitute.

Hace hoy una semana, el 15 de marzo de 2016, las secciones sindicales de Somos Sindicalistas, ELA y CCOO han registrado un documento, en este Ayuntamiento, dirigido a todos los grupos políticos, en el que muestran su preocupación ante la falta de seguridad detectada por ellos en el Depósito Municipal de Vehículos de Morlans, donde desarrollan, diariamente, su actividad laboral.

Idazkian diotenez, jagole kalifikaturik ez dagoenez gero, batez ere gauean, Biltegian segurtasuna ez dago bermatuta ez gordailuturiko ibilgailuetarako ezta gaueko txanda egiten duen langilearentzat ere (txandaren arabera, batzuetan emakume bat egoten han bakarrik gau osoan), berak bakarrik egiten baititu kontrol lanak.

En ese escrito plantean que “la falta de un vigilante cualificado hace que, sobre todo por las noches, la seguridad del depósito municipal no esté garantizada, para los vehículos depositados ni para el el trabajador (cuando por turno corresponde, es una mujer la que se queda sola toda la noche) que hace turno de noche, trabajador que realiza él solo las labores de control”.

Eta dokumentu horren bidez, sinatzaileek kezkaturik daudela adierazten dute, bai eta eskatzen ere langile guztien segurtasuna bermatzeko lehenbailehen konponbide bat bilatzeko, Udal Biltegiak behar bezala jarduteko eta, gerokoan, erasorik, lapurretarik edo kalterik deitoratu behar ez izateko.

Y con este documento, los firmantes quieren manifestar su “preocupación” y esperan “que se busque una solución urgente que garantice la seguridad de todos los trabajadores, para el buen funcionamiento del Depósito Municipal y no tener que lamentar después ninguna agresión, robo, o desperfectos”.

Ondo diotenez aipatu sindikatuen ordezkariek, eta joan den batzordean azaldu genuen bezala, Donostiako Udalaren eta enpresa

Como bien dicen los representantes de los sindicatos mencionados, y como pusimos de manifiesto en la pasada Comisión, el pliego de

emakidadunaren arteko kontratua arautzeko baldintzen orriak jaso bezala, Morlanseko Biltegian etengabe egon behar du legezko gaitasuna duen langile batek, jagoteko eta kontrolatzeko lanak betetzen, segurtasun sistema osagarriak ezarri ahal izateaz gain. (...)".Hau da, aipatu hiru sindikatuek jagole gaitu bat eskatzea ez da langileen apeta huts bat, Donostiako garabi zerbitzua arautzeko baldintzen orrietan xedaturiko baldintza bat baizik. Eta kontratuak lege dira, hau da, betetzeko daude.

condiciones que rige el contrato entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la empresa adjudicataria contempla que, en el Depósito de Morlans, debe existir la "presencia permanente de personal con funciones de vigilancia y control con la habilitación legal correspondiente, sin perjuicio de la instalación de sistemas de seguridad complementarios. (...)". Esto es, la exigencia del vigilante cualificado al que aluden los tres sindicatos mencionados no es un capricho de estos trabajores, sino que se trata de una previsión que figura en los pliegos, en el contrato que rige el servicio de grúa en San Sebastián. Y los contratos son ley, esto es, están para cumplirse.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Era berean, orrien 13.2. artikuluan Esleipendunaren Eskubideak biltzen dira. Eskubide horien artean honakoak aipa daitezke: "Udalak esleipenduna babestea eta haren agintea ezartzea, zerbitzu publiko baten esleipendun den aldetik hirugarrenek hura errespeta dezaten eta eman zaion zerbitzua behar bezala gauzatzea eragotziko dizkioten asaldurak kasu guztietan baztertu daitezen". Eta, Udalaren eskubideen artean (14.2. artikulua) hau jasotzen da: "zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak agintzea eta ematea". Gure ustez, alderdi hori ez da betetzen ari Udala egun: hau da, Donostiako Udala ez da arduratzen Morlanseko Biltegian zerbitzua behar bezala eman dezaten. Eta azken osoko bilkuran egiaztatu bezala, ez dirudi utzikeria horri buelta emateko inolako asmorik duenik; eta hori ezin dugu besterik gabe onartu.

Asimismo, el artículo 13.2 de los pliegos recoge los Derechos del Adjudicatario, entre los que se recoje: "Que el Excmo. Ayuntamiento le proteja e interponga su autoridad, en cuanto fuera preciso para que sea respetado por terceros en su condición de adjudicatario de un servicio público, y para que cese toda perturbación al normal desempeño del servicio que se le concede". Y, entre los Derechos del Ayuntamiento (artículo 14.2) se recoge el de "ordenar y dictar las instrucciones precisas para el correcto funcionamiento del servicio". Cuestión ésta que, a nuestro entender, no se está cumpliendo actualmente; esto es, el Ayuntamiento de San Sebastián no está velando porque en el Depósito de Morlans se preste un sevicio adecuado. Y, como quedó acreditado en el último Pleno, no parece tener intención de revertir esa dejación; cuestión que no debemos dejar pasar por alto.

Gur asmoa da ekarpenak egiten jarraitzea, halako batean deitoratu behar ez izateko segurtasun neurriak laxatzearen ondorioak —Donostiako beste alde batzuen gainean salatu

En nuestra intención de seguir aportando para que no tengamos que lamentar, en cualquier momento, las consecuencias de una relajación de las debidas medidas de seguridad -como

dugun bezala, auzotarren, hedabideen eta talde politiko honen ahaleginari esker—, horra zergatik aurkezten duen Talde Popularrak honako MOZIOA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu taldeari Morlanseko Ibilgailuen Udal Biltegiko segurtasun integralari buruzko txosten bat egin eta, beharrik egonez gero, behar diren neurriak hartzea —kontratazio pleguetan eskatuak—, Donostiako kaleetan ibilgailuak eraman eta gordailuan uzteko zerbitzua legezko bermeekin emateko.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

hemos denunciado, también, en otros puntos de la ciudad y que, tras el esfuerzo de vecinos, medios de comunicación y de este Grupo político-, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que elabore un informe sobre la seguridad integral del Depósito Municipal de Vehículos de Morlans y que adopte, en su caso, las medidas de seguridad necesarias -y exigidas en los pliegos de contratación- para que se preste el servicio de retirada y depósito de vehículos en nuestra ciudad con las debidas garantías.

En Donostia/ San Sebastián, a 17 de Marzo de 2016

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Jose Mª Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José Mª Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro y Dª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**15. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, eskailera, arrapala eta igogailuetarako kontu-sailei buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko martxoaren 14an izan zuen bileran eskailera, arrapala eta igogailuetarako kontu-sailez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko uztailean onartutako inbertsio planean bost kontu-sail zeuden eskailera, arrapala eta igogailuetarako. Gure taldeak besteren bat ere sartu nahi izan zuen, baina, pena bada ere, ez zen onartu.

2015eko Inbertsio planean diren eskailera, arrapala eta igogailuetarako kontu-sailetako bi murriztu egin dira. Zehazki, Morlans-Aieten igogailua jartzeko kontu-saila (proiektua 21.090,30 € kostatu da eta horretarako kontu-saila 90.000 eurorena zen) eta Altza-Jolastokietarako "Eskailerak, arrapalak eta igogailuak" kontu-saila (26.000 € murriztu da eta proiektu hori egiteko 34.000 € gelditu dira).

Kontu-sail horien eta beste batzuen geldikinekin, Mugikortasun Atalaren beharretarako beste kontu-sail batzuk sortu dira.

**15. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a las partidas destinadas a proyectos de escaleras, rampas y ascensores.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 14 de Marzo de 2016, relativa a las partidas destinadas a proyectos Escaleras, rampas y ascensores.

JUSTIFICACION

El Plan de inversiones aprobado en Julio 2015 contenía cinco partidas para realizar proyectos "Escaleras,rampas y ascensores". Nuestro Grupo quiso incorporar alguna más que lamentablemente no fue aprobada.

De las partidas existentes en el Plan de Inversiones 2015 para realizar proyectos de "Escaleras, rampas y ascensores" han sido disminuidas, en concreto, la partida destinada al proyecto de "ascensor Morlans-Aiete" debido a que dicho proyecto ha costado 21.090,30€ (la partida era de 90.000€) y la partida de "Escaleras, rampas y ascensores" para "Altza -Jolastokieta" se ha visto reducida en 26.000€, quedando para la elaboración de dicho proyecto una cantidad de 34.000€.

Con los remanentes de éstas y otras partidas se han creado otras partidas para las necesidades del Departamento de Movilidad.

Talde Popularrak uste du, Udal honek mugikortasun bertikalarena seriotan hartu nahi badu, proiektu batzuk aztertu eta lehiaketara atera behar dituela, egin beharreko lanen proposamen xehatu bat egiteko modua izateko.

Desde le Grupo Popular consideramos que si este ayuntamiento se quiere tomar en serio la movilidad vertical tiene que ir estudiando y licitando los proyectos para poder realizar una propuesta detallada de actuaciones.

Mugikortasuneko eskuordedunak eman zigun erantzuna izan zen aterata daudela lehiaketara Aiete-Morlans, Erregezaintza kalea-Gantxegi, Larratxo 46 eta Zuhaizti-Konkorreneko exekuzio proiektuak. Eta 2016ko Aurrekontuetako "Mugikortasun bertikaleko proiektuak" izeneko 643.01 kontu-saila (200.000 €) Garraio bertikaleko plan gidaria egiteko erabili behar dela.

Las respuestas obtenida de la Delegada de Movilidad fue que ya se han licitado los proyectos de ejecución de Aiete-Morlans, Escolta Real-Gantxegi, Larratxo 46 y Zuhaizti-Konkorrenea. Y que la partida 643.01 de 200.000€ existente en el Presupuesto 2016 "Proyectos de de Movilidad Vertical" se va a destinar a realizar un "Plan Director de Transporte Vertical".

Gobernu Taldeak ebazpen proposamen bat onartu zuen, gure taldeak 2015eko urriaren 27an aurkeztu zuena eta zera esaten duena: Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari aurkezteko 2016ko Aurrekontuan, hau da, agintaldiko lehen aurrekontuan, irisgarritasun eta mugikortasun bertikala hobetzeko esku-hartze proposamen zehatz bat, goialdeetako auzoetan gauzatzekoa, eta, horretarako, beharrezko aurrekontuko kontu-sailak sortu ditzala, gizarte onura handiagoa ekartzen dutenei lehentasuna emanez, Gobernu Programan jasota bezala.

El Equipo de Gobierno aprobó una propuesta de resolución presentada por nuestro Grupo el pasado 27 de Octubre 2015 cuyo acuerdo decía "El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que presente, en el Presupuesto 2016 que es el primer Presupuesto del mandato una propuesta detallada de actuaciones de accesibilidad y movilidad vertical, a desarrollar en los barrios altos, e incorporando a tal fin las respectivas partidas presupuestarias necesarias y priorizando aquellas que tengan un mayor beneficio social, como recoge el Programa de Gobierno."

Gure taldeari ez zaio iruditzen Garraio bertikaleko plan gidaria egiteko baldintza orri batzuk prestatu beharrik dagoenik, lehen ere bai baitago udal honetan planik asko irisgarritasunaz, mugikortasunaz eta beste gai batzuez, eta baita auzo askoren eskaerarik ere, auzotarrek ederki asko justifikatuta dituztenak aspaldi eta udalak ondo asko ezagutzen dituenak.

Desde nuestro Grupo no vemos necesaria la necesidad de preparar unos pliegos para elaborar un "Plan director de Transporte Vertical" puesto que ya existen numerosos planes de en este ayuntamiento sobre accesibilidad, planes de Movilidad, además de demandas de los diferentes barrios debidamente justificadas por sus vecinos desde hace muchos años y de los que este ayuntamiento ya tiene conocimiento.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Guk uste dugu Udalak dituen baliabideekin berekin ere egin daitekeela Garraio bertikaleko plan gidaria, ez dagoela Gobernu Taldeak onartu eta aurkeztutako 643.01 kontu-sail hori lizitatu beharrik, eta hor ez dela plan gidaririk aipatzen, mugikortasun bertikaleko proiektuak baizik.

Consideramos que el Plan Director de Transporte Vertical se puede realizar con recursos propios del ayuntamiento sin necesidad de licitar la partida 643.01 aprobada y presentada por el Equipo de Gobierno que en ningún caso habla de "Plan Director" sino de "Proyectos de Movilidad Vertical".

Horiek horrela direla, hauxe da Talde Popularrak aurkeztutako MOZIOA:

Por todo esto, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio mugikortasun bertikaleko proiektuak lizitatzen segitzeko erabiltzeko 643.01 kontu-saila, eta irisgarritasun eta mugikortasun bertikaleko esku-hartze proposamen zehatz bat egiteko 6 hilabete baino lehen, goialdeetako auzoetan egin beharreko proiektuak jasoko dituena, eta proiektu horiek aurrera ateratzeko behar diren kontu-sailak sartzeko 2017ko aurrekontuetan, gizarte onurarik handiena dutenak aurrena direla.

El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno a que utilice la partida 643.01 a seguir licitando proyectos de movilidad vertical y a que elabore una propuesta detallada de actuaciones de accesibilidad y movilidad vertical en un plazo de 6 meses donde se recojan los proyectos a desarrollar en los barrios altos, e incorporando a tal fin las respectivas partidas presupuestarias necesarias en los presupuestos municipales del 2017, priorizando aquellas que tengan un mayor beneficio social.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

En Donostia / San Sebastián, a 17 de Marzo de 2016

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**16. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Carlos I.aren hiribideko lurpeko pasabidea dela eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko otsailaren 15ean izan zuen bileran Carlos I.aren hiribideko lurpeko pasabidea dela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Carlos I.aren azpiko pasabideak itxi gabe segitzen du —ulertzerik ez badago ere— oraindik. Izan ere, udalbatza eta batzorde askotan hitz egin eta gero, Carlos I.aren hiribide inguruko bizilagunei galdetzea erabaki zuen 2015eko azaroan Donostiako Udalak ea pasabidea ixtea edo ez ixtea iruditzen zitzaien, jo ere hirian den puntu beltzetako bat jota baitago pasabide hori.

Gure talde politikoak kontu horren inguruko interpelazio bat egin zion Udal Gobernuari joan zen otsaileko batzordean. Eta Mugikortasuneko zinegotzi eskuordedunak

**16. Moción de control, presentada por el grupo PP, en relación al cierre del pasadizo de Carlos I.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacios Públicos. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 15 de Febrero de 2016, relativa al paso peatonal subterráneo de Carlos I.

JUSTIFICACION

El cierre del pasadizo de Carlos I sigue estando pendiente, de manera inexplicable. Tras haberse debatido la cuestión en Plenos y Comisiones varias, el Ayuntamiento de San Sebastián decidió, en noviembre de 2015, consultar a los vecinos del entorno de Carlos I sobre su posición en relación al cierre o no del pasadizo; condiderado, además, como un punto negro de esta ciudad.

Nuestro Grupo político quiso interpelar al Gobierno Municipal sobre el asunto en la Comisión de Febrero de este año. La Concejal Delegada de Movilidad contestó que, una vez

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

erantzun zigun zundaketa bat egin zutela bizilagunen artean (15.000 gutun bidali ziren auzoko etxeetara) eta 3 milak besterik ez zuela erantzun. Haietatik, hiri bizilagunetatik bi pasabidea behin betiko ixtearen alde zen, eta hirutatik bat kontra.

realizado el sondeo a los vecinos (que consistió en un envío de 15.000 cartas a domicilios del barrio) sólo 3.000 de ellos contestaron: dos terceras partes de los vecinos estaban a favor de cerrar definitamente el pasadizo, frente a una tercera parte que estaba en contra.

Zinegotzi eskuordedunak onartu egin zuen zundaketak lagundu egin ziola Gobernu Taldeari Carlos I.aren azpiko pasabidea behin betiko ixteko erabakia hartzen, eta 200.000 euroko kontu-sail bat zegoela horretarako.

La Concejal Delegada reconoció que el sondeo había ayudado al Equipo de Gobierno a tomar la decisión de cerrar definitivamente el pasadizo de Carlos I, y que había una partida de 200.000 euros destinada para ello.

Bada, erabakia hartze pentsatu (uda hasiera), Udal Gobernua ados jarri, parte hartze prozesua egin, bizilagunen iritzia jakin, gure alderdiari erantzun eta abar egin arte, denbora franko pasatu da, asko balio duten hilabete batzuk. Behin betiko erabaki bat hartuta baldin badago, egin egin behar da lehenbailehen. Kontuak utzi eta ekin egin behar zaio.

Pues bien: desde que se pensó en tomar la decisión (a comienzos del verano), se puso de acuerdo el Gobierno Municipal, se realizó el proceso participativo, se conoció la opinión de los vecinos, se contesta a esta parte y demás, han pasado muchos y valiosos meses. Si se ha tomado una decisión definitiva, urge llevar a cabo dicha actuación. Sobran las palabras, y deben prevalecer los hechos.

Carlos I.aren azpiko pasabidea ixteko lanak egiten hastea hainbeste atzeratu direnez —orain ematen du bi astean lizitatuko dituztela—, hauxe da Talde Popularraren MOZIOA:

Ante el retraso en la ejecución del cierre del pasadizo de Carlos I -que ahora parece que se va a licitar en dos semanas-, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die arintzeko izapideak, obrak egiteko den kontu-saila exekutatzeko eta behin betiko ixteko Carlos I.aren azpiko pasabidea ahalik eta azkarren, Amarako bizilagunek hala eskatzen dute eta.

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que agilice los trámites, ejecute la partida destinada al efecto, y proceda al cierre definitivo del pasadizo subteráneo de Carlos I a la mayor brevedad, como exigen los vecinos de Amara.

Donostian, 2016ko martxoaren 17an

En Donostia/ San Sebastián, a 17 de Marzo de 2016

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko zinegotzia".

Miren Albistur Garmendia
Concejal del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Mª Murguiondo Casal jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Ernesto Gonzalo Gasco jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José Mª Murguiondo Casal, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**12:55ETAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:00AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 12:55H, SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:00H.**

---------------

**17. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak egina, Morlanstarrak elkartearen lokala dela eta.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko martxoaren 14an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**17. Moción de control presentada por el grupo EH BILDU en relación del local de la asociación Morlanstarrak.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada por el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada el 14 de marzo de 2016 en la Comisión de Servicios a las

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Personas.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko apirilean, Morlanstarrak Auzo Elkarteari Leire plazako udal-lokal baten erdia lagatu zion Udalak. Hain zuzen, Udalaren aspaldiko irizpide bati eutsiz: auzo bakoitzean, auzogintzarako udal-lokal bat egotea, gutxienez, lekuko herri mugimendu eta elkarteentzat. Geroztik, auzo elkarteak baita auzoko hainbat eragilek ere (auzo-konpostaren taldea, festetakoa...) ere erabiltzen dihardute, baina egoera prekarioan, lokala ez baitago egokituta oraindik ere, eta hotza eta hezetasuna dira nagusi.

Auzo elkarteek, irabazi eta gaitasun ekonomiko urria duten elkarteak direla ikusirik, egokitze lanetarako laguntza eskatu zioten Udalari (Loiolako Erriberetako eta Herrerako elkarteen kasuan gertatu den bezala), baina Udal Gobernuak proiektua egiteko udal arkitekto bat izendatzeko konpromisoa hartu baino ez zuen egin. 2016ko martxoaren 14ko batzordean zinegotzi-ordezkariari gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun laguntzeko borondatea zegoela, baina hilabeteak pasatu diren arren, udal arkitektoa oraindik ere izendatzeke zegoela eta proiektua definitutakoan erabakiko zela ea udal-brigaden laguntza eskainiko zen eta “622.99.02 auzo elkarteen lokal berriak egokitzeko” kontu-sailetik laguntzarik bideratuko zen.

JUSTIFICACIÓN

En abril de 2015, el Ayuntamiento cedió el uso de la mitad de un local municipal situado en la calle plaza de Leire a la Asociación de Vecinos y Vecinas Morlanstarrak, obedeciendo a un criterio mantenido desde hace tiempo por el Ayuntamiento: que cada barrio cuente, al menos con un local municipal para el trabajo en favor del propio barrio, para uso de los movimientos populares y asociaciones de la zona. Desde entonces, dicho local está siendo utilizado tanto por la citada asociación como por otros agentes del barrio (grupo de compostaje comunitario, grupo de festejos…), pero en una situación precaria, ya que todavía no se ha procedido a su acondicionamiento, y es un espacio frío y húmedo.

Las asociaciones de vecinos y vecinas poseen pocos recursos y tienen una capacidad económica reducida, por lo que solicitaron ayuda al Ayuntamiento para el acondicionamiento del local (algo que ya ha sucedido en los casos de las asociaciones de Riberas de Loiola y de Herrera), pero el Gobierno Municipal se limitó a comprometerse a nombrar un arquitecto municipal para la realización del proyecto. En la comisión del 14 de marzo de 2016, planteamos preguntas sobre esta cuestión a la concejala delegada, la cual nos respondió que existía voluntad de ayudar, pero que, a pesar de que ya habían transcurrido varios meses, todavía no se había nombrado al arquitecto municipal y que cuando se definiera el proyecto se decidiría si se ofrecería la ayuda de las brigadas municipales y si se utilizarían ayudas de la partida denominada 622.99.02, destinada al acondicionamiento de los nuevos locales de las

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

asociaciones vecinales.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

Es por ello por lo que el grupo EH Bildu presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egokitzerako proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko beharrezko laguntza eman dezala Morlanstarrak elkarteak Morlans-ko auzotarren erabilerarako udal lokal duina izan dezan.

